


**M** LH4

2016-2017



# Zuzenketarako koaderno

*Izen-abizenak:*

*Ikastetxea:*

*Ikastaldea/Ikaskela:*

*Herria:*

*Data:*

**Matematika**  
**Gaitasuna**

*Lehen Hezkuntzako 4.a*

# Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Esate baterako:

**Zenbat dira  $2 + 5$ ?**

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

**Zenbat dira  $2 + 5$ ?**

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Beste galdera batzuetan, aldiz, puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

**Esan zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangelu batek.**


.....



**Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.**

# Fruta dendan

Herriko fruta saltzaileak denda txiki bat du. Apaletan frutak eta barazkiak daude. Biltegian hozkailu handi bat du, frutak eta barazkiak freskoago gordetzeko.



1. Fruta saltzaileak lau zatitan moztu du laranja bat. Begiratu irudiari eta erantzun galderei.

Zatietako bakoitza laranjaren laurdena da?

.....

Zergatik?

.....



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	"Ez" erantzun du, eta ongi arrazoitu du. Azalpen zuzenak: <ul style="list-style-type: none"><li>- Zatiak berdinak ez direlako</li><li>- Laurdenak berdinak izan behar direlako</li><li>- Erdiko zatia haundiagoa delako</li><li>- Ertzetako zatiak txikiagoak direlako</li><li>- .....</li></ul>

**2. Fruta saltzaileak laranjondo bat du baratzean. Esan, gutxi gorabehera, zenbat pisatzen duten irudian ikusten diren laranjek guztira.**

- A. Kilogramo bat baino gutxiago.
- B. Kilogramo bat.
- C. **Kilogramo bat baino gehiago eta lau baino gutxiago.**
- D. Lau kilogramo edo gehiago.



**3. Ikusi bi balantza hauek. Sagar guztiek berdin pisatzen dute. Zenbat gramo pisatzen dute eskuineko balantzako bi sagarrek?**

- A. 96 gramo.
- B. 160 gramo.
- C. 240 gramo.
- D. **320 gramo.**



4. Aurki ezazu sandiaren pisua, pista hauei jarraituz.

- Zifra guztiak bikoitiak eta desberdinak dira.
- Batekoen zifra ehunekoen zifraren hirukoitza da.
- Hamarrekoen zifra milakoen zifraren bikoitza da.



Laukitxo bakoitzean, dagokion zifra idatzi.

4	2	8	6	gramo
M	E	H	B	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Hiru zifretako <b>bat ere ez</b> badu ongi kokatu.
1	Hiru zifretako <b>bat edo bi</b> kokatu baditu ongi.
2	<b>Hiru</b> zifrak kokatu baditu ongi.

5. Nire aitonak 60 orburu erosi ditu herriko frutadendan. Orburuen  $\frac{1}{3}$  a oparitu digu. Zenbat orburu oparitu dizkigu?

- A. 10 orburu.
- B. 20 orburu.
- C. 30 orburu.
- D. 40 orburu.



6. Fruta saltzaileak, 3 zaku patata, 5 kaxa laranja eta 4 kaxa sagar erosi ditu. Zenbat kilogramo erosi ditu guztira?

Idatzi eragiketak eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.** Baliozko prozedura batzuk:

A metodoa: Patatak:  $3 \times 27 = 81$  kg

Laranjak:  $5 \times 18 = 90$  kg

Sagarrak:  $4 \times 13 = 52$  kg

GUZTIRA:  $81 + 90 + 52 = 223$  kg

B metodoa: Patatak:  $27 + 27 + 27 = 81$  kg

Laranjak:  $18 + 18 + 18 + 18 + 18 = 90$  kg

Sagarrak:  $13 + 13 + 13 + 13 = 52$  kg

GUZTIRA:  $81 + 90 + 52 = 223$  kg

27 kg



18 kg



13 kg



Guztira, .....**223**..... kg erosi ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko <b>2 hutsegite edo gehiago</b> egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) eragiketak idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <b>bat</b> bakarra egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azkeneko soluzioa zuzen eman du.


7. Fruta saltzaileak 168 kilogramo udare erosi ditu. Dendan 2 kaxa utzi ditu eta biltegiko hozkailuan beste 4 kaxa. Kaxa guztiek berdin pisatzen dute. Zenbat kilogramo pisatzen du kaxa bakoitzak?

- A. 22 kilogramo.  
 B. **28 kilogramo.**  
 C. 38 kilogramo.  
 D. 56 kilogramo.



8. Fruta saltzaileak erlojuari begiratu dio. Denda arratsaldeko zortziak eta laurdenetan ixten badu, zenbat minutu gelditzen zaizkio denda ixteko?

- A. 80 minutu.
- B. 110 minutu.
- C. 140 minutu.
- D. 170 minutu.



9. Fruta saltzaileak 7 euro itzuli dizkio bezero bati. Bete ezazu taula posible diren aukera guztiekin, baina soilik hor agertzen diren txanponak edo billeteak erabiliz:

	 Bost euroko zenbat billete erabiliko ditu?	 Bi euroko zenbat txanpon erabiliko ditu?	 Euro bateko zenbat txanpon erabiliko ditu?
<i>Adibidea</i>	1	1	0
1. aukera	1	0	2
2. aukera	0	3	1
3. aukera	0	2	3
4. aukera	0	1	5
5. aukera	0	0	7

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Aukera <b>1 edo 2</b> erantzun baditu ongi.
1	<b>3 edo 4</b> aukera erantzun baditu ongi.
2	<b>5</b> aukerak erantzun baditu ongi.

# Gorputz Hezkuntzan

Gorputz Hezkuntzan askotariko materialak erabiltzen dituzte: koltxonetak, erraketak, baloiak... Askotariko kiroleetan aritzen dira, hainbat eremutan: areto-futboleko zelaian, jolastokian...



**10.** Begiratu koltxoneta baten irudi honi. Zer irudi geometriko ikusten dituzu?

- A. Zirkulua eta triangelua.
- B. Triangelua eta karratua.
- C. Karratua eta hexagonoa.
- D. Triangelua eta hexagonoa.



**11.** Ikusi irudian agertzen den erraketa. Eragiketa hauetako zeinek adierazten du erraketan dauden zuloen kopurua?

- A.  $6 \times 7 + 8$
- B.  $6 \times 8 + 7$
- C.  $7 \times 8 + 6$
- D.  $8 \times 8 - 6$





**12.** Ikasleak gorputz adierazpeneko ariketak egiten ari dira. Erreparatu irudian markatuta dauden bi angeluei.

Angelu horiek, beren neurriaren arabera, honela sailkatzen dira:

- A. 1. angelua zorrotza da, eta 2. angelua kamutsa.
- B. 1. angelua zorrotza da, eta 2. angelua zuzena.
- C. 1. angelua kamutsa da, eta 2. angelua zorrotza.
- D. 1. angelua kamutsa da, eta 2. angelua zuzena.



**13.** Ikasleak areto-futboleko zelaiari ari dira jolasean. Zelaiaren erdia 20 metroko aldea duen karratua da. Zenbat metro neurtzen du luzeran areto-futboleko zelaiak?

- A. 20 m.
- B. 40 m.
- C. 80 m.
- D. 120 m.


**14.** Ikusi irudian agertzen den arrapala. Zenbat ertz, aurpegi eta erpin ditu guztira (agerian diren ala ez)?

- A. 5 ertz, 9 aurpegi eta 6 erpin ditu.
- B. 9 ertz, 6 aurpegi eta 5 erpin ditu.
- C. 6 ertz, 5 aurpegi eta 9 erpin ditu.
- D. 9 ertz, 5 aurpegi eta 6 erpin ditu.



**15.** Lehen Hezkuntzako 4. mailako bi geletako 49 ikasleak Gorputz Hezkuntzako klasean elkartu dira, hainbat kirolean aritzeko.

Osa ezazu grafikoa futbolean ari diren ikasleen barrarekin.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du marraztu 12ra arteko barra.
1	Marraztu du 12ra arteko barra.

**16.** Jarduera batean, hiru talde bildu dira errelebo lasterketa bat egiteko. Talde bakoitzak hiru lasterkari ditu. Begiraiozu lortutako emaitzen taulari eta bete itzazu guztira egindako denborak. Ondoren, beheko galderei erantzun.

	1. erreleboa	2. erreleboa	3. erreleboa	Guztira
A taldea	2 min 30 s	2 min	3 min	7 min 30 s
B taldea	3 min	4 min	1 min 30 s	8 min 30 s
C taldea	4 min	2 min 30 s	2 min	8 min 30 s

a) Zer taldek irabazi du?

**A taldeak irabazi du**

b) Ikusi zer denbora egin duten lasterkari azkarrenak eta motelenak. Zein izan da bien arteko denbora diferentzia?

**2 min 30 s (150 s) izan da diferentzia [4 min – 1 min 30 s]**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteatutako galderetako bat ere ez du ongi erantzun.
1	Planteatutako bi galderetako <b>bat</b> erantzun du ongi.
2	- Ongi bete ditu lerroetako guztizko guztiak eta ongi erantzun badu (a) atala: puntu bat. - Ongi erantzun badu (b) atala, eragiketa arrazoitu ez badu ere: puntu bat. Emaitzak adierazi daitezke modu konplexuan zein ez.

- 17.** Gorputz Hezkuntzako irakasleak jolastokiko zuhaitzen inguruan korrika 7 bira emateko agindu die. Osotara, 1 km 526 m egin dute korrika. Kontuan izanik bira guztiak berdinak izan direla, zenbat metro egin dute bira bakoitzean?

Idatzi eragiketa eta soluzioa.

Egin beharreko kalkulua:

$$1526 : 7 = 218 \text{ m}$$



Bira bakoitzean .....**218**..... metro egin dute.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) eragiketa idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azkeneko soluzioa zuzen eman du eskatutako neurri-unitateak erabiliz.

**18.** Ikastetxeak 900 euro gastatu nahi ditu kirolerako materiala erosteko. Erosi dituzte koltxoneta bat, 658 € balio duena, eta saskibaloiko 8 baloi, baloi bakoitzak 27 € balio duelarik. Zenbat diru gelditzen zaio ikastetxeari kirolerako material gehiago erosteko?

Idatzi eragiketak eta soluzioa.



**Egin beharreko kalkuluak:** *Baliozko prozedura batzuk:*

A metodoa: Baloiak:  $8 \times 27 = 216 \text{ €}$

Kiroleko materiala:  $658 + 216 = 874 \text{ €}$

GELDITZEN ZAIZKIO:  $900 - 874 = 26 \text{ €}$

B metodoa: Koltxonetarik gabe gelditzen dira:  $900 - 658 = 242 \text{ €}$

Baloiak:  $8 \times 27 = 216 \text{ €}$

GELDITZEN ZAIZKIO:  $242 - 216 = 26 \text{ €}$

.....**26**..... euro gelditzen zaizkio kirolerako material gehiago erosteko.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko <b>2 hutsegite edo gehiago</b> egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izanagatik ere) eragiketak idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <b>bat</b> bakarra egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azkeneko soluzioa zuzen eman du.